


## FUNTSEZKO JARDUERAK

Zein dira egin behar ditugun gauzarik garrantzitsuenak gure proiektua funtziona dezan?


Hasteko bizikletak alokatzeko Orbearen laguntza izango dugu. Orbeak material guztia erreztuko digu. Haiek izango dira bizikletak, segurtasun materiala, GPS-ak, kamisetak, txaketak eta kapeluak. Material guzti hau udaran erabiliko dugu, eta urtean zehar Orbeak eramango du materialaren mantenua. Udaran gure kabuz egingo ditugu mantenimendu lanak, garbitu, bateriak kargatu, gurpilak ondo puztu, balaztak egiaztatu... Hau guztia eskuragarri izango dugu gure dendan, eta bezeroak eskuragarri izango dute dendara hurbilduz.



Publizitatea izango da zati garrantzitsu bat, gure bezeroak erakartzeko. Alde batetik sare sozialetatik egingo dugu publizitatea, Instagram, Twitter edota Cookien bitartez. Bestalde Hondarribiko turistak erakartzeko herriko hoteletan eskuorriak banatuko ditugu, eta bertan deskontuak jarriko ditugu kanpotarren gogoia pizteko. Hau gure kabuz egingo dugu.



Hainbat irteera dauzkagu, horretarako gidak ditugu, haiek txirriand ibilitako trebeak izango dira, eta Hondarribi eta inguruko bazterrek eta txokoak ezagutuko dituzte, beti ere segurtasuna eskeiniz eta bermatuz. Irteera hauek Hondarribi ingurutik izango dira eta herriko natura eta mendiak ezagutuko dituzte beraien eskutik.



Beste aukera bat, herrian zehar bueltaxka bat ematea izango da, Hondarribi hobeto ezagutzeko. Jarduera hau hobetzeko GPS-ak eskainiko ditugu, bezeroak ez galtzeko. Erabiltzaileak nahi izan ezker, GPS-tik ibilbide bat markatuko diegu horrela guk uste dugun ibilbide xarmentena egingo dute herrio toki esaguratsuenetatik pasata.



Dendan bezeroetaz arduratuko gara. Nahi dutena eskainiko diegu eta pertsona bakoitzari egokituko gara. Hau da, tamaina desberdineko txirrinda, kaskoa... Familiak etorri ezker haurrentzako exerlekuka emango ditugu, familiako txikiak esperientziaz goza dezaten.



Amaitzeko eskolak irteraren bat egin nahi badute, gurekin kontaktuan jarri daitezke eta guk materiala erreztuko diegu.